Resultan reprobables la falta de transparencia del Gobierno en un tema de este calado y su falta de respuesta, lo que nos impele a presentar la siguiente MOCIÓN

#### MOCIÓN

-El Ayuntamiento Pleno pide con firmeza al Gobierno municipal que deje sin vigor la declaración de espacio de gran afluencia turística aprobada por la Junta de Gobierno el 10 de noviembre y que asuma la aprobada el 22 de octubre de 2014.

En San Sebastián, a 17 de diciembre de 2015

Josu Mirena Ruiz Martin,  
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Amaia Martin Garin andreak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Josu Ruiz Martín, D<sup>a</sup>. Amaia Martín Garín y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**BAZTERTUA.**

**GEHIENGOA.**

**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)**

**IRABAZI DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7)**

**PSE-EE, (3) PP.**

**RECHAZADA.**

**MAYORÍA.**

**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)**

**IRABAZI DONOSTIA.**

**VOTOS EN CONTRA: 19 – (9) EAJ-PNV, (7)**

**PSE-EE, (3) PP.**

-----

**III.2.2. Kontrol Mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, ".eus" domeinuak direla eta.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzatan azter dadin. Mozioa 2015eko abenduaren 14ean Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

**III.2.2. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre los dominios ".eus".**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación substanciada en la Comisión de Servicios a las Personas del 14 de diciembre de 2015.

**JUSTIFIKAZIOA**

Orain urtebete deialdia egin zitzaion euskal komunitateari erakunde, elkarte, enpresa eta norbanakoak beren web orriak, onartu berriko .eus domeinura pasatzeko. Beste erakunde askoren artean Donostiako Udala ere ekimen honetara batu zen, erabaki estrategikoaren garrantziaz jabetuta. Hala, Udalaren “Donostia.org” web orria “Donostia.eus” bihurtu zen eta, horrekin batera, udal langileen posta helbideak etabar. Halaber, udalaren eraginpean diren udal sozietate eta erakunde autonomoak ere prozesu berean sartzen joan ziren, bakoitzak bere berezitasunak izanik, bakoitzak erabakia eritmo desberdinetara gauzatuko duelarik.

**JUSTIFICACIÓN**

Hace un año, se realizó un llamamiento a la comunidad vascohablante, para que instituciones, asociaciones, empresas y particulares migrasen sus páginas web al recién aprobado dominio .eus. El Ayuntamiento de San Sebastián, consciente de la importancia de la decisión estratégica, se sumó a la iniciativa, entre otras muchas instituciones. Así, la página web “Donostia.org” se convirtió en “Donostia.eus”, y, con ello, también se modificaron las direcciones de correo de los y las trabajadoras municipales. Asimismo, las sociedades municipales y organismos autónomos dependientes del Ayuntamiento iniciaron el mismo proceso, cada cual con sus particularidades, plasmando cada uno y cada una de ellas el acuerdo según su propio ritmo.

Pasa den abenduaren 14ean, Udal Gobernuari interpelatu zitzaion zehazki ea Donostia Kultura EEPko web orri desberdinak .eus domeinura pasatzeko plangintzaren jarraipenaz, azken hilabeteotan izan diren kontraesanak tarteko. Zehazki itaundu zitzaion Donostia Kultura EEPko web orri desberdinak .eus domeinura pasatzeko helburua edukita, plangintzaren beharra aitortua, horrek marka eta logotipoaren aldaketa behar duela onartua, eta, horren ondorioz, horretarako lehen fasean beharko den dirua hornitzeko prestutasuna agertu ondoren, zer dela-eta Udal Gobernuak ez zuen beharra ikusten, edo zer dela-eta ez zuen egin nahi hurrengo fasean aurreikuspena, fase horiek beharko duten diruz hornituz.

Batzordean bertan, Kulturako zinegotzi ordezkari Miren Azkarate Villar andreak eman zituen azalpenak entzunda, lehendik zeuden zalantzak eta kezkez gain, berriak sortu dira. Zinegotzi ordezkariak Donostia Kultura EEPko web orriari begira eginiko bidea gutxietsiz, arazo berriak mahaigaineratu zituen, planoak nahastuz. Horrela, egindako interpelazio zehatzari erantzun ordez, antzeko egoera eduki zezaketen domeinuak, Udaren menpe dauden "dfutura" eta "turismo.com" parekatu zituen, egoera desberdinetan egon arren.

Horrez gain, problematika oso desberdinak dituzten domeinuak aipatuz erantzun zuen: Tabakalera eta dss2016koak, zehazkiago, ".eu" domeinua, hau da, beren naturari dagokionez, Europako domeinua aukeratu

El pasado 14 de diciembre se interpeló concretamente al Gobierno municipal sobre el seguimiento del plan para migrar las distintas hojas web del ente público empresarial Donostia Kultura al dominio .eus, debido a las contradicciones surgidas estos últimos meses. En concreto, se interrogó por la razón por la que el Gobierno municipal, teniendo como tiene el objetivo de migrar las diversas páginas web del ente público empresarial Donostia Kultura al dominio .eus, habiendo reconocido la necesidad de planificar el proceso, una vez que ha admitido que será necesario modificar la marca y el logotipo de la entidad, tras haberse mostrado dispuesto a proveer los fondos precisos para la primera fase, no veía la necesidad o por qué no había hecho una previsión de las siguientes fases, dotándolas de la necesarias partidas presupuestarias.

Tras oír en el seno de la comisión las explicaciones dadas al respecto por la concejala delegada de Cultura, Miren Azkarate Villar, además de las dudas e inquietudes existentes, surgieron otras nuevas. Minusvalorando el camino recorrido de cara a la hoja web del EPE Donostia Kultura, puso sobre las mesa nuevos problemas, enmarañando los planos. Así, en lugar de responder a la interpelación concreta, estableció una comparación con dominios que podrían encontrarse en una situación semejante, los dependientes del Ayuntamiento "dfutura" y "turismo.com", aunque estén en una situación distinta.

Además, respondió trayendo a colación dominios que presentan problemáticas muy distintas: en concreto, los de Tabakalera y dss2016, que, como corresponde a su naturaleza, han optado por el dominio ".eu", el

dutelako.

de Europa.

Horiek horrela, hauxe da aurkeztutako

Por tanto, presentamos la siguiente

**KONTROL MOZIOA:**

**MOCIÓN DE CONTROL**

-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Udalak erabiltzen dituen domeinuak ".eus" delakora pasatzeko plangintzarekin irmotasunez aurrera jarrai dezala horretarako behar diren neurriak lehenbailehen hartuz.

El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que siga adelante con firmeza con el plan de migrar los dominios que utiliza el ayuntamiento al dominio ".eus", adoptando, lo antes posible, cuantas medidas sean precisas al respecto.

Donostian, 2015eko abenduaren 17an

En San Sebastián, a 17 de diciembre de 2015

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,  
concejala del grupo municipal EH Bildu.".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Amaia Martin Garin andreak, Miren Azkarate Villar andreak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D<sup>a</sup>. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D<sup>a</sup> Amaia Martín Garín, D<sup>a</sup>. Miren Azkarate Villar y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**  
**ONARTUA.**  
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**  
**APROBADA.**  
**UNANIMIDAD.**

-----

**III.2.3. Kontrol Mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, San Sebastian eguneko jardueretan emakumezkoen parte hartzea dela eta.**

**III.2.3. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre la participación de las mujeres en las actividades del Día de San Sebastián.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala

udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko abenduaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Ayuntamiento Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación sustanciada ante la Comisión de Servicios a las Personas del 14 de diciembre de 2015.

#### JUSTIFIKAZIOA

Bai Udaletik bai herri ekimenetatik urtez urte lan handia egin da Donostian hurrengo belaunaldiek jendartearen eta, eremu honi dagokionez, zehazkiago festen beste eredu bat jaso dezaten. Baina, tamalez, oraindik ere askotan denok landu eta bultzatu nahi dugun parekidetasuna ez da behar bezala gauzatzen. Urrunago joan gabe, aurtengo Aste Nagusian Kanoikada delako ekitaldian emakumeek presentzia modu nabarmenean galdu zuten, eta, datorren urteari begira pentsatuz, bai eta aurki izango den San Sebastian egun berezia helburu, honako iradokizun hau egin genion Udal Gobernuari irailaren 4an: "Urtebete falta da 2016ko Aste Nagusia egiteko eta hilabete gutxi batzuk 2016ko San Sebastian eguna ospatzeko, bi egitarau horietako ekitaldi nagusietan, Kanoikadan eta banderaren igoera zein jaitzieran, hurrenez hurren, emakumeen presentzia eta parte hartzea parekidetasun irizpideetan oinarritua izan dadin, jarduera horietan parte hartzen duten eragileekin behar besteko lanketa egin dadin, ondorio ikusgarriak izan daitezen."

Iradokizuna egiterakoan batzordean bertan Udal Gobernuaren ordezkariak azaldu zuen bezala, ekimen hauetan burutzen diren jarduerak ez daude soilik Udal Gobernuaren

#### JUSTIFICACIÓN

Tanto desde el Ayuntamiento como desde las iniciativas populares, año tras año, se ha venido realizando una ardua labor para que las próximas generaciones de donostiarra reciban otro modelo social y, por lo que corresponde a este ámbito, concretamente, festivo. Pero, por desgracia, todavía son muchas las ocasiones en las que no llegamos a alcanzar la paridad por la que trabajamos, y que todos y todas queremos impulsar. Sin ir más lejos, este año, en el cañonazo de la Semana Grande, la presencia de las mujeres se vio notablemente reducida. Por eso, de cara tanto a la Semana Grande del año que viene como al especial día de San Sebastián, que está muy próximo, el 4 septiembre realizamos la siguiente sugerencia al Gobierno municipal: "Falta un año para la Semana Grande 2016 y unos pocos meses para el Día de San Sebastián de 2016. Hay que garantizar que en los actos principales de esas fiestas, el cañonazo y la izada y arriada de la bandera, respectivamente, la presencia y la participación de las mujeres esté basada en principios de igualdad, habiendo trabajado todo lo necesario con los agentes que participan en dichas actividades, para que los resultados sean notorios".

Tal y como la representación del Gobierno municipal expuso en la comisión misma en la que realizó la sugerencia, las actividades que se realizan en estas iniciativas no están

esku, baizik eta iradokizunean agertzen zen moduan, baita jarduera horiek sustatu eta gauzaten dituzten eragileen esku ere. Eta eragile horiekin lanketa egitea guztiz garrantzizkoa da; alegia, helburua beraiekin konpartitu eta garaiz aurreikusi behar da, horrek behar duen denbora eskainiz eta abar. Zerbitzu Orokorretako Batzordearen azaroaren 16ko bileran, 2016ko San Sebastian Egunaren bandera igoera eta jaitziera ekitaldietan emakumeek izango duten parte hartzeari buruzko galdera egin genuen, Alfonso Gurpegui Ruiz Festa Jardueretako zinegotzi ordezkariak bertan erantzun zezan eta aipatu den lanketaren berri jasotzeko asmoz. Udal Gobernuaren ordezkariaren erantzuna ez zen oso segurua izan, zehaztasunak baino gehiago zalantzak agertuz, Gobernu Programan gai hau helburu bezala agertu arren. Horregatik abenduaren 14an ordezkari berari interpelazioa egin genion, aurretik agertutako zalantzak eta ziurgabetasunak oinarri.

Guztion aldetik publikoki onartua da festetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari begirako aurrerapausoak emateko garrantzia, festetan ematen diren egoerek islatzen duten sinbologia eredu bihurtzen delako eta etorkizunean esangura berezia hartzen duelako.

Hala, abenduaren 14ko batzordean Alfonso Gurpeguiren hitzak txalogarriak lirateke mamiari ere heldu izan balio, hemen dugun arazoa ez baita kopuru edo kantitate arazo bat. Espresuki galdetu zitzaion bertan kantitatez eta kalitatez aurrerapausoak emateko prestutasunaz eta, atzerapausorik

exclusivamente en manos del Gobierno municipal, sino que tal y como se recoge en la sugerencia, en manos de los agentes que impulsan y llevan a cabo esas actividades. Y es de todo punto importante elaborar ese aspecto con los agentes implicados; es decir, se debe compartir el objetivo con ellas y ellos y prever un plazo suficiente, dedicando todo el tiempo que sea preciso. En la reunión celebrada el 16 de noviembre por la Comisión de Servicios Generales, inquirimos sobre la participación de las mujeres en la izada y arriada de la bandera el día de San Sebastián de 2016, para que respondiera en ella el concejal delegado de Actividades Festivas, Alfonso Gurpegui Ruiz, y para recabar noticias sobre ese proceso de elaboración que se ha mencionado. La respuesta del delegado del Gobierno municipal no fue muy segura, y ofreció más dudas que detalles, aunque en el Programa de Gobierno este asunto esté recogido como objetivo a conseguir. Es por ello por lo que el 14 de diciembre interpelemos al mismo delegado, en base a las dudas e incertidumbres aparecidas con anterioridad.

Todas y todos reconocemos públicamente la importancia que reviste el hecho de que en las fiestas se den pasos para lograr la igualdad entre mujeres y hombres, puesto que la simbología que reflejan las situaciones que se dan en los actos festivos se convierte en modelo y adopta un significado especial en el futuro.

Así, las palabras de Alfonso Gurpegui en la comisión del 14 de diciembre serían merecedoras de aplauso si se hubiera ceñido al meollo de la cuestión, porque el problema que estamos analizando no es un problema de cuánta o cantidad. Se le preguntó en esa misma sesión sobre la disposición a dar pasos

izango ez dela adierazi arren, guztia kopuruetan zentratu zuen, zenbat gizon eta emakume zeuden aurreko urteotan, eta zenbat izango diren 2016an. Kantitatez igotzea pozgarria da, desoreka kuantitatiboa handia baita oraindik ere, baina hori bezain inportantea - edo, hobeto esanda, hori baino inportanteagoa- da emakumeek festan betetzen duten funtzioa, plazan agertzen diren postu horren atzean esangura handia baitago.

“1813-2013: Emakumeak nola joan garen eskuratzen gure espazioa Danborradan” - Donostia/San Sebastian 2014 ikerketa bekak dioena gogoratzea ezinbestekoa da, arestian baieztatu duguna argitzearren: “...emakumeen partaidetza prozesu luzea izan dela, non mailaz maila berdintasunaren aldeko aurrerapenak egin diren. Alabaina, begien bistakotik haragoko begirada batek erakusten digu emakumeen kopuruaren emendatzeak ez dakarrela berez arazoa ebazterik, lana burutua dagoenik. Egiteke daudenen artean, hona hemen inportanteena dela uste duguna: Danborradak utz diezaiola misto izateari behingoz berdinzale izan dadin; hau da, goian esan bezala, bere kideak, gizonak izan, emakumeak izan, baliokide izan daitezten...”

Udal Gobernuaren kezka 2016ko urtarrilaren 19tik 21era doazen 24 ordu horietako sorpresak gordetzea da. Horretan sartu gabe, badu bere garrantzia geroari begira zer nolako irizpideen arabera jokatu duen, kantitate-orekak alde batera utzi gabe, 2016ko danborradan gizon eta emakumeen arteko

cuantitativos y cualitativos, y aunque manifestó que no se retrocedería, todo lo centró en las cantidades, cuántos hombres y mujeres asistieron en años anteriores y cuántas personas serán en 2016. Es motivo de alegría el que se incremente la cantidad, porque el desequilibrio cuantitativo es grande todavía, pero tan importante como ello —o, mejor dicho, más importante que eso— es la función que desempeñan las mujeres en la fiesta, puesto que es está lleno de significado lo que se oculta detrás del puesto en el que aparecen en la plaza.

Resulta imprescindible recordar lo que dice la beca de investigación realizada en 2014 en San Sebastián 1813-2013: Cómo las mujeres hemos ido conquistando nuestro espacio en la Tamborrada, para aclarar lo que hemos afirmado anteriormente: “...la participación de las mujeres en esta ha sido un proceso largo, en donde se han ido ganando posiciones a favor de esa igualdad. No obstante, una mirada que trascienda las apariencias hace evidente que la extensión numérica de la participación de las mujeres no significa que el problema esté resuelto ni que se haya terminado la partida. / Entre lo que queda por hacer, señalamos aquí aquello que consideramos más importante: que la Tamborrada deje de ser mixta para ser, definitivamente, igualitaria, en el sentido arriba mencionado de equivalencia entre sus componentes, sean estos mujeres u hombres”.

El afán del Gobierno municipal es guardar a buen recaudo las sorpresas para esas 24 horas que van del 19 al 21 de diciembre de 2016. Sin entrar a analizarlo, tiene su importancia el saber en función de qué criterios se actuará en el futuro, sin dejar de lado la paridad en las cifras, para que consigamos una participación

berdintasunezko partaidetza lor dezagun.

igualitaria entre mujeres y hombres en la Tamborrada de 2016.

Horiek horrela, hauxe da aurkeztutako

Por tanto, presentamos la siguiente

**KONTROL MOZIOA:**

**MOCIÓN DE CONTROL**

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, 2016ko San Sebastian Egunaren bandera igoera eta jaitsiera ekitaldiak prestatzerakoan, eta emakumeek berdintasunezko parte hartzea ziurtatzeari begira, kontuan izan ditzan 2014an argitaratutako "1813-2013: Emakumeak nola joan garen eskuratzen gure espazioa Danborradan" Donostia/San Sebastian 2014 ikerketa bekaren inguruan egindako lana eta ondorioz jaso ziren gomendioak, "Danborradan berdintasunezko partaidetza lortzeko proposamenak" izenburuko dokumentuan jasoak.

.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que en los preparativos de la izada y de la arriada de la bandera del día de San Sebastián de 2016, y de cara a garantizar la participación de las mujeres en condiciones de igualdad, tenga en cuenta el estudio realizado dentro de la beca de investigación San Sebastián 2014 San Sebastián 1813-2013: Cómo las mujeres hemos ido conquistando nuestro espacio en la Tamborrada y las recomendaciones que, como consecuencia de ese estudio, se recogieron en el documento Propuesta para conseguir una participación igualitaria entre mujeres y hombres en la Tamborrada.

Donostian, 2015eko abenduaren 17an

En San Sebastián, a 17 de diciembre de 2015

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,  
concejala del grupo municipal EH Bildu.".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Amaia Martin Garin andreak, Miren Albistur Garmendia andreak eta Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D<sup>a</sup>. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D<sup>a</sup>. Amaia Martín Garín, D<sup>a</sup>. Miren Albistur Garmendia y D. Alfonso Gurpequi Ruiz, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**  
**ONARTUA.**  
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**  
**APROBADA.**  
**UNANIMIDAD.**

-----

**III.2.4. Kontrol Mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, udala partaide den sozietateetan erabiltzen diren hizkuntza irizpideak direla-eta.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko abenduaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

**JUSTIFIKAZIOA**

Hainbat arrazoi tarteko dagoeneko aski ezaguna denez, TABAKALERAn Urtezaharreko gau-festa antolatu da. Festarako promozioa nagusiki interneten bidez egin da, gaur egun gazteek erabiltzen duten hedabide nagusia izanik. Gazteen artean euskararen ezagutza indizeak, beste adin batzuetakoekin alderatuta, askoz ere altuagoak diren arren, festa antolatu duen enpresak erabili dituen hizkuntza irizpideak ulertezinak suertatu dira (adibidez kartel digitalean ingelesa hutsa nagusi), baita Udal Gobernuarentzat ere, batzordean bertan agerian geratu zen bezala.

Euskarako zinegotzi ordezkariak berak ere batzordean azaldu bezala, ñabardurak ñabardura, CICC SA delakoaren partaide diren hiru erakunde publikoek (Udala bera, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko

**III.2.4. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre los criterios lingüísticos utilizados en las Sociedades en las que el Ayuntamiento es participante.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para que sea tratada en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios a las Personas del 14 de diciembre de 2015.

**JUSTIFICACIÓN**

Como es de general conocimiento por diversas razones, en Tabakalera han organizado un cotillón de Nochevieja. La promoción de la fiesta se ha realizado, sobre todo, a través de Internet, por ser el medio más utilizado actualmente por la juventud. Aunque los índices de conocimiento de euskera entre las personas jóvenes, en comparación con personas de otras edades, sean mucho más altos, los criterios lingüísticos utilizados por la empresa organizadora de la fiesta han resultado difíciles de comprender (por ejemplo, en el cartel digital está casi únicamente en inglés), incluso para el Gobierno municipal, como quedó de manifiesto en la comisión misma.

Tal y como explicó la concejala delegada misma, con diversos matices, los tres organismos públicos que conforman CICC SA (el Ayuntamiento mismo, la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Gobierno Vasco) disponen de

Jaurlaritza) euskara normalizatzeko planak dituzte eta plan horiek antzeko hizkuntza-irizpideak barnebiltzen dituzte. Edonola, Donostiako Udalak "Donostiako Euskararen Plan Orokorra" delakoaren bidez indarrean dituenak betetzeko ardura du. Hala ere, emandako azalpenen arabera, Tabakalera idatzizko oharren gaineko jarraipena egin arren, informazio digitalaren bidez egiten denari ez zaio jarraipen maila bera eman, inondik inora.

Tabakalerako festa honetan gertatutakoa kezagarria da, gazteen aisialdiaren inguruan kokatua baitago, eta, hain zuzen ere, adituek horrelakoak aipatzen dituzte erabilera bultzatzeko une egokienak bezala. Kasu honetan, euskararen erabilera bultzatu beharrean, ingelesarena bultzatu da.

Eta hori baino kezagarriagoa da Udal Gobernuak arlo digitalari emaniko garrantzi eskasa, behin eta berriro irizpideok betetzeko prestutasuna eta arestian aipatutako plana hertsiki betetzeko asmoa agindu arren.

Horiek horrela, hauxe da aurkeztutako

#### KONTROL MOZIOA:

.- Udaltzako hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala, euskararen erabilera normalizatzeko bidean, aurrerarratsak emateari begira, eta indarrean dagoen "Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5. Plangintzaldia (2013-2017)" delakoaren arau eta jarraibideen norabidea kontuan hartuz, Udalak parte hartzen duen sozietateetan ere Udalak bereak dituen hizkuntza-irizpideak sozietate horietan ezartzeko prozedurak eta

planes de normalización del euskara, y esos planes recogen criterios lingüísticos similares. De todos modos, compete al Ayuntamiento de San Sebastián el cumplir los que tiene vigentes en el Plan General de Euskara. Aun así, según las explicaciones que ofreció, aunque en Tabakalera se haga un seguimiento de las comunicaciones escritas, en modo alguno se ha llevado a cabo el mismo nivel seguimiento de la información ofrecida digitalmente.

Lo sucedido con esta fiesta de Tabakalera es preocupante, porque atañe al ámbito del ocio juvenil, y, en concreto, las personas expertas señalan esas ocasiones como los momentos más apropiados para impulsar el uso. En este caso, en lugar de promocionar el uso del euskara, se ha impulsado el del inglés.

Y es aún más preocupante la poca importancia concedida por Gobierno municipal a lo digital, aunque una y otra vez haya mostrado su disposición a cumplir los criterios, así como su intención de cumplir estrictamente el Plan mencionado anteriormente.

Por tanto, presentamos la siguiente

#### MOCIÓN DE CONTROL

.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que garantice, en la vía de la normalización del euskara, con vistas a dar pasos al frente, y teniendo en cuenta el sentido de las normas y directrices recogidas en el Plan de Normalización del Uso del Euskara del Ayuntamiento de San Sebastián, 5º Periodo de Planificación (2013-2017), que también en aquellas sociedades participadas por el Ayuntamiento se realicen la gestiones y procedimientos precisos para establecer los

kudeaketak egitea.

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari dagozkion neurriak har ditzala, euskararen erabilera normalizatzeko bidean, aurrera-urratsak emateari begira, eta indarrean dagoen "Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5. Plangintzaldia (2013-2017)" delakoaren arau eta jarraibideen norabidea eremu digitalean ere betearazteko.

Donostian, 2015eko abenduaren 17an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

criterios lingüísticos propios del Ayuntamiento.

.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que apruebe las medidas necesarias, con objeto de seguir avanzando en la normalización del uso del euskera, para hacer cumplir también en el ámbito de lo digital el sentido de las normas y directrices recogidas en el Plan de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de San Sebastián, 5º Periodo de Planificación (2013-2017).

En San Sebastián, a 17 de diciembre de 2015

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,  
concejala del grupo municipal de EH Bildu.".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Amaia Martin Garin andreak, Maria Luisa Garcia Gurruchaga andreak, Miren Azkarate Villar andreak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D<sup>a</sup>. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D<sup>a</sup> Amaia Martín Garín, D<sup>a</sup>. María Luisa García Gurruchaga, D<sup>a</sup> Miren Azkarate Villar y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**  
**ONARTUA.**  
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**  
**APROBADA.**  
**UNANIMIDAD.**

-----

**III.2.5. Kontrol Mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, udala partaidea den sozietateetan erabiltzen diren espazioak alokatzeko irizpideka direla-eta.**

**III.2.5. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre los criterios para alquiler de espacios en las Sociedades en las que el Ayuntamiento es participante.**

**KENDUA.**

**RETIRADO.**

**III.2.6. Kontrol mozioa, EH BILDU taldek egina, Udalaren jabegoko lekuetako izenak direla-eta.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko abenduaren 14ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

**III.2.6. Moción de control presentada por EH BILDU sobre la denominación de los lugares de propiedad municipal.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación substanciada en la Comisión de Espacio Público celebrada el 14 de diciembre de 2015.

**JUSTIFIKAZIOA**

Pasa den abenduaren 14ean Gune Publikoen Batzordean hizpide izan zen Loiolako “Urdintzu” zubiaren izena, hain zuzen ere areto honetan urriaren 27an ezagutarazi genuen moduan, Loiolako kuarteletara pasatzeko zubian kartel berria jarria zegoelako: “Puente de Alfonso XIII” zioena, eta hiriko armarría izan beharrean Espainiar estatukoa zuena; hau da berezko izena islatzen ez duen-, hizkuntza irizpideak betetzen ez dituen- eta Donostiako armarría jasotzen ez duen kartela

Batzordean bertan zinegotzi ordezkariak azaldu zuen bezala Loiolako zubi horrek “Urdintzu” izena du, hala jarri baitzion Donostiako Udalak, gaur bezala Udalbatzan bildurik, 1998an. Horrekiko koherentziaz ere aipatu beharra dago, zubiari dagokion kartela

**JUSTIFICACIÓN**

En la reunión de la Comisión de Espacio Público celebrada el pasado 14 de diciembre tratamos el tema de la denominación del puente “Urdintzu” de Loiola, ya que, tal y como hicimos saber en este mismo salón el 27 de octubre, se ha colocado una nueva placa al puente que da acceso a los cuarteles de Loiola con la denominación “Puente de Alfonso XIII”, en la que, en lugar del escudo de la ciudad, figura el escudo del Estado español, es decir, una placa que ni refleja la denominación original, ni cumple los criterios lingüísticos, ni lleva el escudo de la ciudad.

Sin embargo, como señaló el concejal delegado en la citada comisión, este puente de Loiola se denomina “Puente de Urdintzu”, ya que así fue denominado por el Ayuntamiento de Donostia, reunido, al igual que hoy, en sesión plenaria el año 1998. En consecuencia,

jarri berri duela, berezko izena eta Donostiako armarría txukun erabiliz.

Ez da Udalaren jokabidea, bereak ez diren jabegoei izena jartzea eta, beraz, ondoren Defentsa Ministerioak berea bailitzan jokatu duen arren, oinarria badago zubia Udalarena dela esateko. Zer esanik ez, izenari dagokionez, aspaldiko toponimoa dela entzutea besterik ez dago, eta inguruko baserri bati dagokiola dokumentatua dagoen moduan. Beraz, Espainiar estatuko Defentsa Ministerioak bere eremua babestu nahian dituenak eta ez dituenak zapaldu dituela, Donostiatik laster joango direlakoan egon arren, alde egin bitartean, Udalari dagokiona ongi defendatzea badagokio Udalbatza honi.

Horiek horrela, hauxe da aurkeztutako

#### KONTROL MOZIOA:

\* Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Loiolako Urdintzu izeneko zubiaren jabegoa udalarena dela argitze aldera, beharrezko prozedurak eta kudeaketak egin ditzala aurrerantzean, Espainiar estatuko Defentsa Ministerioaren zein beste edonoren aurrean, hala egiaztatua gera dadin.

Donostian, 2015eko abenduaren 17an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”.

hemos de señalar que recientemente ha sido colocada la placa correspondiente a este puente, con su denominación original y el escudo de la ciudad.

El Ayuntamiento no se dedica a poner nombre a lugares que no son de su propiedad y, por tanto, aunque el Ministerio de Defensa ha actuado como si este puente fuese suyo, hay base suficiente para afirmar que el puente es de propiedad municipal. Y huelga decir, en relación con el nombre, que basta escucharlo para deducir que se trata de un antiguo topónimo que corresponde, tal y como está documentado, a un caserío existente en aquel lugar. Por todo ello, y a pesar de que el Ministerio de Defensa del Estado español, pretendiendo defender su espacio, se ha apropiado tanto de lo propio como de lo ajeno —y aunque pensamos que pronto se marchará de Donostia—, hasta que esto suceda, corresponde a esta Corporación defender lo que es del Ayuntamiento.

Es por ello por lo que presentamos la siguiente

#### MOCIÓN DE CONTROL:

\* El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, en aras a despejar cualquier duda sobre la pertenencia del puente Urdintzu de Loiola a este Ayuntamiento de Donostia, lleve a cabo los trámites y las gestiones que sean necesarias para que, de aquí en adelante, así sea acreditado tanto ante el Ministerio de Defensa del Estado español como ante cualquier otra instancia.

En Donostia, a 17 de diciembre de 2015

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,  
concejala del grupo municipal EH Bildu.”.

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Loïc Alejandro jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak eta Alkate-Udalburuak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D<sup>a</sup>. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Loïc Alejandro, D. José María Murguiondo Casal, D. Enrique Ramos Vispo y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**ONARTUA.**

**ALDEKO BOTOAK: 23 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**APROBADA.**

**VOTOS A FAVOR: 23 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697  
6004h 2003-04

**III.2.7. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak egina, babesleek egiten duten hizkuntza-irizpideen erabilera direla-eta.**

“Naiara Sampedro Perezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko abenduaren 14an Pertsonentzako Batzordean Kiroletako eta Gazteriako Martin Ibabe jaunari zuzenduriko interpelazioaren ondorioa da.

**JUSTIFIKAZIOA**

Joan den urriaren 9an, posta elektronikoaren bidez, Freestyle delako ikuskizunera joateko gonbidapen ofiziala, Eneko Goia alkateak sinatuta jaso genuen. Eta aipatutako

**III.2.7. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre el uso de los criterios lingüísticos de los patrocinadores.**

“Naiara Sampedro Pérez, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Ayuntamiento Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación substanciada en la Comisión de Servicios a las Personas del 14 de diciembre de 2015.

**JUSTIFICACIÓN**

El 9 de octubre recibimos, mediante correo electrónico, la invitación oficial, firmada por el señor alcalde, Eneko Goia, para asistir al espectáculo Freestyle. Entre los patrocinadores

jardueran, Donostia Kirola babesle gisa azaltzen zen. Donostia Kirolaren aipamena akatsa ez delakoan gaude, baizik eta udalaren esku hartzea egon zela. Aipa karteleko azalpen guztiak gazteleraz zeuden "urria" hitza izan ezik, eta, beraz, akatsa larria iruditzen zaigu, berau hizkuntz irizpideak urratzea baita, jakin badakigunean zein garrantzizkoa den haur eta gazteei zuzentzen zaizkien jardueretan euskararen erabilera aktiboa zein pasiboa erabiltzea.

Udal Gobernuak behin eta berriro euskararen erabileraren aldeko eta bere babesarekiko adierazpenak egin ditu baino ahozko konpromiso hori balekotsat har daitekeen arren, praktikan ez da horrela. Hori dela eta, behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

#### KONTROL MOZIOA:

- Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari udaleko administrazioaren edozein ataletik igarotzen diren ekimenetan hizkuntza irizpideak bermatzea. Modu berean, Udala babesle gisa izan edo eta Udaletik at egiten diren ekimenetan hizkuntza irizpideak bermatu daitezten bideratu beharreko gomendioak jakinarazi ditzan eta Donostiako bi hizkuntza ofizialetan jarduteko eskubidea urratua izan ez dadin.

Donostian, 2015eko abenduaren 17an

Naiara Sampedro Perez  
EHBildu udal taldeko zinegotzia".

de dicha actividad figuraba Donostia Kirola. Suponemos que esta referencia al patronato de deportes no es un error y que hubo participación por parte del Ayuntamiento. Todas las informaciones del cartel del evento estaban exclusivamente en castellano, salvo la palabra "urria" (octubre), y este es un hecho que consideramos grave, ya que supone una vulneración de los criterios lingüísticos, cuando todos y todas sabemos de la importancia del uso activo y pasivo del euskera en las actividades dirigidas al público infantil y juvenil.

El Gobierno municipal ha manifestado en reiteradas ocasiones que está a favor del euskera y que lo apoya, y aunque este compromiso verbal puede considerarse válido, en la práctica no es así. Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente

#### MOCIÓN DE CONTROL:

- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno municipal que garantice el cumplimiento de los criterios lingüísticos vigentes en aquellas iniciativas que tramite cualquiera de los departamentos de la administración municipal. Así mismo, solicita que el Ayuntamiento dé a conocer las recomendaciones que sirvan para garantizar el cumplimiento tanto en las iniciativas patrocinadas por el Ayuntamiento como en otras que se realicen en nuestra ciudad, y para que el derecho a utilizar cualquiera de las dos lenguas oficiales de San Sebastián no sea vulnerado.

San Sebastián, a 17 de diciembre de 2015

Naiara Sampedro Perez,  
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Naiara Sampedro Perez andreak, Amaia Martin Garin andreak, Miren Azkarate Villar andreak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak eta Maria Luisa Garcia Gurruchaga andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D<sup>a</sup>. Naiara Sampedro Pérez, D<sup>a</sup>. Amaia Martín Garín, D<sup>a</sup>. Miren Azkarate Villar, D. José Luis Arrúe Pintó y D<sup>a</sup>. María Luisa García Gurruchaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**ONARTUA.**

**GEHIENGOA.**

**ALDEKO BOTOAK: 23 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**APROBADA.**

**MAYORÍA.**

**VOTOS A FAVOR: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**

**III.2.8. Kontrol Mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, eraikuntza legeak aldatzea dela eta, eraikuntzetan ziurrak ez diren puntu edo lekuak ekiditeko.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, bizitoki eraikinetan gune edo eremu arriskutsuak saihesteko eraikuntza arauak aldatzea dela eta, Udalbatzan azter dadin. Mozioa abenduaren 14ko batzordean aztertutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

**III.2.8. Moción de control presentada por EH BILDU sobre la modificación de las normas de edificación para evitar puntos o espacios inseguros en las edificaciones.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del Grupo Municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, sobre la modificación de las Normas Complementarias de Edificación para evitar puntos o espacios inseguros en las edificaciones residenciales. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en Comisión el pasado 14 de diciembre.

JUSTIFICACIÓN

Joan den legegintzaldian, Berdintasuneko eta Hirigintzako sailetatik beharrezko jo zuten besteak beste Eraikuntzako Ordenantza Osagarriak aldatzearen alde lan egitea, eraikinetako eremu edo gunee arriskutsuak kentzearen.

1998ko azaroaren 23an onartutako Eraikuntzako Ordenantza Osagarriek zehazten dituzte etxebizitzetara eta ondasun higiezinetara sartzeko eremu eta elementuetan aplikatzekoak diren funtzionalitate baldintzak. Arau hori aldatu behar da bizitegi eraikinetako atalondoetan gunee edo eremu arriskutsuak kentzen laguntzeko, guztientzat hiri seguruagoa izatearen alde.

Udalak komenigarri jo zuen eraikuntzako ordenantzak «osatzea», atalondoetan sarbidea eta ezarpena pertsonentzako segurtasun orokorreko baldintza egokietan egin dadin, besteak beste alderdi hauek behar bezala zainduta: kaletik eta ibilbide nagusietatik duen sarbidea, ikusgaitasun txikiko eremuak saihestu edo kenduta, bai eta ezkututzen dituzten elementuak ere; barnealdea ikusiz kontrolatzea errazten duten elementu eta material gardenak erabiltzearen alde egitea; horma atalean fatxadak jartzea, atzera-emateak eta ikusgaitasuna oztopatzen duten elementuak saihestuta.

Helburu horrekin, Eraikuntzako Ordenantza Osagarri horiek aldatzeko lanei ekin zitzaion. Hala ere, Udal Gobernuak ez du adierazi zer asmo duen kontu garrantzitsu horren gainean, nahiz eta hilabete batzuk igaro diren ordutik.

En la legislatura pasada se consideró necesario desde los Departamentos de Igualdad y Urbanismo trabajar, entre otros, por la modificación de las Ordenanzas Complementarias de la Edificación para eliminar espacios o puntos inseguros en las edificaciones.

Las Ordenanzas Complementarias de edificación, aprobadas el 23 de noviembre de 1998, determinan las condiciones de funcionalidad aplicables en los espacios y elementos de acceso a las viviendas e inmuebles; norma que es preciso modificar para contribuir a eliminar zonas o espacios inseguros en los portales de las edificaciones residenciales, contribuyendo con ello a hacer una ciudad más segura para todas y todos.

El Ayuntamiento consideró conveniente “complementar” las Ordenanzas de Edificación con el fin de garantizar el acceso y la implantación de los portales en las debidas condiciones de seguridad general para las personas, prestando la debida atención a aspectos como: el acceso desde las calles y recorridos principales, evitando o eliminando zonas de escasa visibilidad, así como elementos que los oculten; apostando por la utilización de elementos y materiales transparentes que faciliten el control visual de su interior; fijando los emplazamientos en el paño de fachadas, evitando retranqueos y/o elementos que dificulten su visibilidad.

A tal fin se empezaron con los trabajos para modificar las citadas Ordenanzas Complementarias de la Edificación; sin que, por parte del gobierno municipal, se diera ninguna información sobre su voluntad con respecto a esta importante cuestión a pesar de los meses

Hori dela eta, horren inguruko interpelazioa egin genion gobernuari, eta hark jakinarazi zigun hasitako lan ildoarekin jarraitzeko asmoa duela udal gobernuak eta jadanik egindako lanen berrikuspen teknikoa egiten ari direla Hirigintza ataleko arkitektoak.

Horiek hala, EH Bildu udal taldeak KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

